

# 4. HEko ikastaroa

*EAEko Administrazio Orokorreko langileentzako argibideak<sup>1</sup>*

**2008/2009**

*ikastaroaren zer-nolakoak  
eta eskaera egiteko  
jarraibideak*

**[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)**

---

<sup>1</sup> **Deialdia:** 2008-4-15eko Ebazpena, IVAPeko zuzendariarena. (EHAA: 2008-05-8)

### Nork har dezake parte ikastaroan?

- Karrerako zein bitarteko funtzionarioek.
- Lan-kontratu mugagabea zein aldi baterakoa duten langileek.

### Ikastaroa eskatzeko baldintzak

Lanpostuko hizkuntza-eskakizunaren arabera aldatzen dira baldintzak:

- **4. edo 3. HE:** Eskaera egitean, 3. HE gaituta eduki behar du eskatzaileak. Baliokidetzen kasuan, ezinbestekoa izango da baliokidetzaren IVAPen hizkuntza-eskakizunen erregistroan jasota egotea. Lanpostuan 4. HE dutenek lehentasun osoa izango dute.
- **1. edo 2. HE:** 3. HE gaituta edukitzeaz gain, eskatzaileak gutxienezko titulazio akademikoa eduki behar du ezinbestean: unibertsitateko diploma.

### Nola egin behar da eskaera?

Eskaerak egiteko bi bide hauek erabil daitezke:

- **Paperezko eskabideak.** Inprimakiak honako helbide elektronikoan daude: [www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net) (*euskara>euskara ikastaroak>inprimakiak*). Interesatuak inprimakia bete, eta bere zerbitzu zuzendariari bidali behar dio.
- **Eskabide telematikoak.** Eskabideok bakoitzaren ordenagailutik bete ahal izango dira ondorengo helbidean: [www.ivap.jakina](http://www.ivap.jakina). Eskatzaileak lehenik XL-Nets segurtasuneko sistemaren bitartez identifikatu behar du bere burua. Eskaerak sail bakoitzean jasoko dira eta bertan kudeatuko dira.

### Eskaera egiteko eta epea

Eskaera egiteko epea **maiatzaren 9etik 26ra** bitartekoa da, biak barne.

### Ikastaroetara joateko baimena eta ordu-kreditua

Baimena eskatzailearen saileko **zerbitzu zuzendaritzak ematen du**.

Lanorduetako ikastaroei dagokienez, ordu-kredituak ezartzen dituen Aginduari jarraituko zaio (Agindua, 2004ko apirilaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, EAEko Administrazioako langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituen; EHAA 2004-5-7)

Ondorioz, ikastaroa **lanorduetan** hasi ahal izateko, **beharrezkoa** izango da ordu-kredituaren **saldoa aldekoa izatea**. Ordu-kreditua ikastaroan zehar agortzen bada, langileak ikastaroa bukatu arte jarraitu ahalko du.

Ordu-kreditua agortu ondoren, dagokion hizkuntza-eskakizuna gaituta ez duen langileari ez zaio onartuko lanorduetan euskara ikasteko eskabidea.

### Sarrera-proba

Eskatzaileak **sarrera-proba bat egin beharko** du. Eskaerak aztertutakoan, IVAPek jakinaraziko du noiz eta non egin behar den. Sarrera-proba **ekainaren bigarren hamabostaldian** egingo da.

Eskatzailea **probara azaltzen ez bada**, proba egin osteko 2 egun baliodunetan idatziz arrazoitu beharko du agertu ez izanaren zergatia. Arrazoitzen ez badu, galdu egingo du ikastaroa egiteko aukera. Arrazoitzen dutenek, ordea, beste aukera bat izango dute, irailaren lehenengo hamabostaldian. Horretara ere ez badoaz, ikastarotik kanpo geldituko dira.

Probak **hiru orduko iraupena** du, eta idazmena eta mintzamina neurtuko dira. Emaizaren arabera moldatuko dira ikastaldeak, talde homogeneoak osatzearren. Parte hartzeko gutxieneko **mailatik behera** gelditzen direnak ez dira onartuko ikastaroan.

### Non izango da ikastaroa?

EAEko lurralde historikoetako **hiriburuetan** osatuko dira taldeak: Bilbo, Donostia eta Gasteizen.

### Egutegia

Talde guztiek egutegi bera dute: **2008ko urriaren 1etik 2009ko maiatzaren 28 arte**.

**Astean lau egunetan eta bi ordukoak** izango dira eskola-saioak: astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan.

### Ordutegia

Bi ordutegi daude aukeran: goizekoa eta arratsaldekoa:

Goizez		Arratsaldez
8:00-10:00	Bilbo eta Donostia	15:30-17:30
	Gasteiz	14:40-16:40

### On-line modulua

- Ikastaro honen iraupena aurrez aurreko saioen parekoa izango da (240 ordu), baita izena emateko bidea zein epeak; baina eskaera egiteko inprimakia betetzean, 4HE on-line laukitxoak aukeratu beharko da.
- On-lineko modalitatean langileek internet bidez egingo dute ikastaroa, baina hilean bitan goiz osoko saio presentzialetara joan beharko dute irakasleekin eta beste ikaskideekin batera. On-lineko ikastaroa egiteko baimena emateak berarekin dakar saio presentzialetara joateko baimena ere ematea.
- Modulu hau lanorduetan egiten dutenei ordu-kredituaren sistema ezarriko zaie.
- On-line moduluan arituko diren ikasleak aukeratzeko IVAPek deialdian jasotako irizpideak ezarriko ditu. Hori dela eta, izena emateak ez du lekua ziurtatzen.
- Ikaslea ez bada urriaren 17a baino lehen hasi ikastaroan, IVAPek baja emango dio eskaerari, eta ezingo du ikastaroa egin.
- Asistentzia hiru hilerik behin jasoko da. Ondorioz, ordu kredituaren saldoa epealdi horien arabera eguneratuko zaie ikasleei.

### Ikastaroaren ebaluazioa

Ikastaroa hiru modulutan dago banatuta eta bakoitzak 80 ordu ditu. **Moduluaren amaieran ebaluazio-proba bat egin behar da**; beraz, **hiru ebaluazio** daude guztira ikastaroan. Emaitza ikaslearen erakundeari jakinaraziko dio IVAPek, langilearen aurrerapenaren berri izan dezan.

### Asistentziaren jarraipena

Ondorio guztietarako ikastegia lantokia da ikastaroa lanorduetan egiten duen langilearentzat. Beraz, eskolatzeko eta puntualitate huts guztiak zuritu beharko ditu bere erakundeak.

Eguneroko **asistentziaren kontrola** egingo da eta IVAPek hileroko asistentziaren berri emango dio ikaslearen erakundeari.

Ikasleek **gutxienez %80ko asistentzia** izan beharko dute **ikastaroan**, aprobetxamendua bermatu eta baliabideak optimizatu ahal izateko. Horregatik, ikaslearen hutsegiteak 48 orduko mugara heltzean, IVAPek baja eman ahal izango dio eta ikastaroa utzi egin beharko du. Eskola-hutsegiteak **ikastaroaren hasiera-egunetik** bertatik zenbatuko dira, nahiz eta ikaslea beranduago hasi.

### Eskoletara joateari uztea

- Ikasleak ikastaroa behin betiko uzten baldin badu, horren berri eman behar du, bestela ordurak kredituak agortzen jarraituko du. Hori dela eta, eskola uztea gertatzen den momentuan, bere prestakuntzaz arduratzen diren eragileei **jakinarazi** beharko die:
  - **Euskaltegiari**, eskolak utzitako data jarri, eta aurrerantzean asistentzia datu gehiagorik sar ez dezan.
  - **Bere erakundeari**, baimendutako ikastaroa utzi duela jakin dezan.
  - **IVAPi** jakinarazpen bat bidali beharko dio, ordu kredituaren zenbaketa eten diezaioten, erakundearen izenpea jarrita. Inprimakia ondoko helbidetik har daiteke:

**[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)**

(*euskara > euskara ikastaroak > inprimakiak*)

### Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa

- Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu eta sail bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.
- Deialdiaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.
  - Deialdira biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua.
  - Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez eta baita euren aprobetxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere.
  - Onartu egiten dute baita ere, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.).

- Onartu egiten dute azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari -HABEri-, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. xedapen gehigarriaren arabera).
- Langileei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako “Funtzionarioak euskalduntzea” izeneko fitxategian egongo dira. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

IVAP, 2008-05-05